

### 3. FUNTSEZKO SOZIETATEAK:

Gure enpresa merkatal elkarte mugatu bat da, hiru bazkidek osatua. Elkarte mugatu bat den neurrian, akzioak kapitalean banatzen dira baina ezin dira baloreen merkatuan kotizatu. Horrez gain, kapitala kuotatan banatuta dago eta bazkide bakoitzak, lana egiteaz gain, kapital minimo bat jarriko du. Bestalde, egingo den diru-ekarpena 3.000€koa izango da bazkide bakoitzeko (minimoa, alegia). Egindako inbertsioaren araberrako irabaziak izango ditu bazkide bakoitzak. Bestalde, elkarte mugatua den neurrian, enpresan sortu daitezken zorrei aurre egiteko ez dira bazkideen ondare pertsonalak erabiliko.



Enpresa osatzen duten bazkide bakoitzak, enpresaren lan jardueran eginbehar desberdinak izango ditu. Batetik, Aiora administrazio eta kontabilitate arduraduna izango da, bere eginbeharrak honakoak izanik: mugimendu eta gastu administratiboen aurrekontua, kobratu eta ordaintzeko dauden kostuen balantzea egin eta jarraitzea, fondoaren saldoa eta kontuko transferentzia zein mugimenduak kontrolatzea, enpresako ondare eta materialak berrikustea, ordainketez arduratzea eta hauen jarraipena egitea, diru-laguntzak eskatzea, bezeroari arreta eta informazioa eskaintzea, lan taldea eta lan tokia koordinatzea. Horrez gain, ikastetxeetan jorratuko diren esku hartzeak koordinatzeaz ere arduratuko da: bezeroekin kontaktuan jarri eta esku-hartzeak aurrera eramateko pausoak definitu eta koordinatuko ditu.

Beste alde batetik, Luna komunikazio eta marketin arduraduna izango da. Honakoak dira enpresan esleituko zaizkion lanak: bezeroarekin harreman-sareak sortu, enpresa merkatu segmentuari iristeko kanalak sortu eta maneiatu, marketing eta publizitate

estrategiak jorratu eta azkenik, enpresaren balore, ikuspegi eta helburuetan oinarritutako enpresaren identitatea gizartera helarazi. Horrez gain, bezeroari zerbitzua helarazteko berebiziko zereginak izango ditu: esku-hartzea martxan jarri eta horretarako saioak diseinatu eta martxan jarriko ditu, beharrezko baliabideen bitartez.

Azkenik, Aintzane, haur eta gazteen aholkularitza eta diagnostikoaz arduratuko da: indarkeria kasuetan inplikaturako adinkide bakoitzean gatazkak kudeatu eta beharrezko gaitasun sozial zein pertsonalak garatzeko estrategia psikopedagogikoak ezarriko ditu, honekin, kasuan kasuko egoeraren diagnostiko bat eginez. Bere beste egiteko bat, Lunarekin batera, esku-hartzea martxan jarri eta horretarako saioak diseinatu eta martxan jartzea izango da.

Enpresako bazkide langile bakoitzaren betebeharrak orokorrak grafikoki adierazten dira ondorengo organigraman. Bertan ikus daitekeen bezala, organigrama modu bertikal batean antolatu da, goitik behera. Hala ere, bertan ikusi daiteke, enpresako langileen betebeharrak eta ardurak botere harreman horizontalean banatu direla. Izan ere, elkarteko hiru bazkideen artean parekidetasunez banatu dira eginbehar guztiak.

